



ALEA

arabako aldizkaria

2015-10-30 OSTIRALA
36. ZENBAKIA
URTEAN 50 EURO
WWW.ALEA.EUS



ONDDOAK MAHAI GAINEAN

Perretxikoen erreinua ezagutarazten ari dira Araban

Joseba Azkarraga

"Dispertsioaren auzian, une txarrenetakoan gaude"

Halloween aurreko ohiturak

Arimen g⁶ua Aiaraldean

ZATOZ EUSKALTELEN ZUNTZERA

GUZTIA

0 € / HIL

2016 ARTE



Pakete osoa 0 €-an 2016 arte, eta, gero, hileko 50,9 €-an soilik (BEZa barea)

Kontratatu urriaren 31 baino lehen, webgunean, saltokietan edo 1717an.

euskaltel

Sustapen hau 2015/10/31 baino lehen Zuntzean egiten diren alita berriei aplikatuko zaie. 12 hilabeteko iraupen-konpromisoa. Informazio gehiago, www.euskaltel.com-en.

HARPIDETU ZAITEZ

ALEA astero etxean jaso nahi baduzu, harpidetu zaitez. 50 euroren truke, 44 ale jasoko dituzu urtean.

www.alea.eus



Alea

36. zk.


Azaleko argazkia:
Itsaso Estarrona



4



8



20



23

- 4 Arabako mikologia elkarteak, sasoiari.
- 8 J. Azkarraga: "Une txarrenetakoan dago presoen auzia".
- 12 Iritzia: Irati Iciar, Iñaki Larrañaga, Itsasegia.

ARABAKO KUADRILLAK

- 14 Gasteiz: konponketak egitearen truke, gizarte-alkairua.
- 16 Aiara: Halloween baino lehen ere kalabazak Araban.
- 17 Gorbeialdea: larrialdietarako prestatu dira Duranan.
- 18 Lautada: sagarrei zuku ateraz, Ozetan.
- 19 Mendialdea: ostiraletan, edadetuak nagusi.
- 20 Añana: Zanbranako gaztelua, lau haizetara.
- 22 Trebiñu: auziarentzat, pauso berrien bila.
- 23 Arabako Errioxa: errefuxiatuekin elkartasuna, Bilarren.

HAMAIIKA SALTSA

- 24 Errigorako saskiak, nekazarien eta euskara ikasleen alde.
- 26 Neska gazteak euren buruarekin gustura egoteko kanpaina.
- 27 Zozketak.
- 28 Postontzia.
- 29 Denbora-pasak.
- 30 Agenda.



Argitaratzailea

Arabako Alea Komunikazio Taldea S.L.

Zuzendaria

Aritz Martínez de Luna Urzelai

Erredakzioa

Anakoz Amenabar
Itsaso Estarrona Elizondo
Mirian Biter

Komertziala

Erlantz Anda

Denbora pasak

Bagabiga

Inprenta

Bidasoa inprentatzeko zentroa

Banaketa

Bidera zerbitzuak

EGOITZA NAGUSIA

Arabako Alea Komunikazio Taldea S.L.
Eskola kalea, 10, 13. bulegoa,
01001, Vitoria-Gasteiz, Araba
Tel.: 945 71 60 09
info@alea.eus

Erredakzioa

erredakzioa@alea.eus

Harpidetzak

harpidetza@alea.eus

Publizitatea

publizitatea@alea.eus
695 63 28 62

Lege Gordailua: VI-32-2015
ISSN: 2386-8961

Tirada: 2.100 ale

Bultzatzaileak:



Laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua

Asteko kolaboratzaileak: Irati Iciar, Iñaki Larrañaga, Iker Etxaniz, Estixu Ugarte, Emaize, Aitor Alvarez eta Hirinet FM.

ALEA ez du bere gain hartzen IRITZIA sailean, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileak, adierazitako iritzien erantzukizunik.

Udazkena saskian

Arabarren artean ziza eta onddoen erreinua ezagutzera emateko buru-belarri ari dira lurraldeko mikologia elkarteak; dibulgazio lana egiteaz gain, espezieen bilduma osatzeko ekarpena egiten ari dira. **ITSASO ESTARRONA** GASTEIZ

Onddoak ikusten zituztenean, ostikoa ematen zieten Trebiñuko Baxauri herriko belaualdi zaharrek. Txarrak zirela uste zuten, eta hiruzpalau ziza mota baino ez zituzten hartzen: batez ere, perretxikoak (udaberriko zizak), pago-zizak (gazteleraz, *pardilla*) eta urril-ziza (*platera*). Basoko perlen erreinu hori arabarren artean ezagutzera emateko, lanera jarri ziren duela hogeitun bost urte baino gehiago Baxauri kultur elkarteak lagunak, Alfredo Mendoza presidentek ALEA-n gogora ekarri duenez.

Hamabost biztanleko herri honean, udazkeneko antolatzen duten Mikologia Eguna "Euskal Herriko mikologia jardunaldi garrantzitsuenen artean egoteko bidean da", azken bi hamarkadetan egin duten ahaleginari esker. Aurtengo hitzordua, hogeita hirugarrena, larunbat honean izango da, 200 espezie ezberdin biltzeko erronkari helduta. Zerumuga horri begira, iaz 137 ziza eta onddo mota ezberdin bildu zituzten, Trebiñu, Mendialdea eta Arabako beste bazter batzuetatik gerturatutako 45 lagunen artean.

Datu basea, Arabatik mundura

Behin saskian, iratxo *fungi* horiek sailkatzea izaten da zailtasun nagusia, eta zeregin horretan ekarpen esanguratsua egin du Arabako Baxauri elkarteak: lurraldeko eta mundu osoko 1.200 espezieren fitxak osatu eta sareratu ditu, Javier Ubillos mikofiloaren eskutik. "Duela

Onddo eta zizekin hitzordua

ASPARRENA (mikologia parkea).

Igandeetan: bisitaldi gidatuak 10:00etatik 13:00etara, azaroaren 22ra arte. Aizkorri-Aratz parkean izena eman behar da: 688629932).

BAXAURI (TREBIÑU)

Larunbata 31: perretxiko bilketa, 10:00etan herritik abiatuta; ondoren, sailkapena eta bazkaria.

AMURRIO

Ostirala 30: "Hydnaceas y Cantharellaceas" hitzaldia, 20:00etan kultur etxean.

Larunbata 31: perretxiko sailkapena udal frontoian, goiz eta arratsaldean. Igande goizean, erakusketa.

Larunbata 31-igandea 1: perretxikoekin prestatutako pintxo lehiaketa zortzi tabernatan.

LAUDIO

Ostirala 30: "Hablamos de Naturaleza" ikus-entzunezkoa, 19:00etan Zubiko etxean.

Larunbata 31: perretxiko sailkapena Laudioko mikologia elkartearen egoitzan, 17:30ean.

Larunbata 31: perretxiko dastatzea herriko plazan; 3 euroan, bost pintxo; horrez gain, perretxiko erakusketa, mineral eta fosilen erakusketa, haur eta gazteen marrazki lehiaketa eta lehiaketa gastronomikoa.

zazpi urte hasi nintzen bilduma egiten, Baxauriko jardunaldia aberasteko; proiektua, alabaina, zabalduz joan zen, eta duela lau urte lan hori guztia interneten eskuragarri jartzea erabaki genuen, Gastronomiazko Euskal Anaiartearekin batera", dio. Egindakoaren aitortza, dibulgazio lan onenagatik saria eman zion Eusko Jaurlaritzak iaz Artiumen.

Izen zientifikoa, izen herrikoiak, ezaugarriak, habitata, sasoiak, erabilpen gastronomikoak eta hankasartze ohikoenak zehazten ditu Javier Ubillosek datu basean (www.fichasmicologicas.com). Bost kontinenteetako zaleek baliatuta, irailean 20.000 bisita izan ditu, 660 inguru egunero, eta urriean kopuru hori bikoiztuko dutela espero dute elkarteko kideek. Orain, euskarara itzultzeko egitasmoa dute esku artean. Bitartean, sailkapenean euskarazko, galegozko eta katalanezko izen herrikoiak ere aipatzen dituzte.

Ziza kopurua, gutxitzen

Arabako espezie barietatean ez du aldaketarik antzeman Javier Ubillosek azken berregeita hamar urteetan, baina bai ordea ale kopuruan, "murriztu egin baita". Hala baieztatu du estatuko mikologia elkarte zaharrenarekin, aurtun mendebaldeko Aranzadi Zientzia Elkartearekin hain zuzen: "Kopurua gutxitu da, seguraski herbizida, fungizida eta bestelako produktu kimikoen erabilerrari lotuta, bai eta beroketa globalaren ondorioz ere", dio.



Baxauri kultur elkarteko lagunak.

ITSASO ESTARRONA

1.200

ESPEZIEEN FITXAK

Arabako Baxauri elkarteko Javier Ubillos mikofiloak mundu osoko 1.200 espezieen fitxak osatu eta sareratu ditu, www.fichasmicologicas.com atarian. Euskarazko izenak aipatzen ditu, eta orain webgune osoa euskaratzea du helburu.

Txanponaren beste aldean, aldiz, mikologia kultura hobetu dela nabarmendu du: "Zizak biltzeko afizioa zabaldu da, eta horrekin batera espezieen ezaguera nabarmen handitu da gurean; lehen, bospasei ziza mota baino ez genituen hartzen: perretxikoak, galanpernak, pago-zizak (*pardilla*), ziza hanka urdina (*pie azul*), onddo zuria (*boletus edulis*) eta ziza horia (*rebozuelo*, *cantharellus* motakoa)". Gaur egun, askoz espezie gehiago ezagutzen ditugu, eta horiek biltzeko modu zuzena ere hobetzen ari da gizartean". Aurrerapauso hori, adituaren hitzetan, "hein handi batean Arabako mikologia elkartean lanari esker egin da".

Mikologia taldeak, sasoian

ARABAKO ELKARTEAK

Murgia: Gorbeiaiko Bazterra mikologia eta natur zientzien elkarte.

Baxauri (Trebiñu): Baxauri kultura elkarteko mikologia taldea.

Amurrio: Arriola mikologia elkarte.

Laudio: Laudioko mikologia elkarte.

Gasteiz: Manuel Iradier txangolari elkarteko mikologia taldea.

Araia: Amalur taldeak onddo bilketa eta erakusketa antolatzen ditu.

"Ziza eta onddo kopurua murriztu egin da, baina gizartearen kultura mikologikoa zabaldu da"

JAVIER UBILLOS BAXAURI KULTUR ELKARTEA


"Onddoen mapa egin nahi dugu, mehatxatuta dauden espezieen zerrenda osatzen laguntzeko"

VICENTE BLANCO GORBEIAKO BAZTERRA

Arabako beste erpinean, Baxauritik kotxez ordubetean, mikologia egitasmo anbiziotsuak dituzte Gorbeiaiko Bazterra elkarteko kideek. Duela hamabi urte sortu zuten taldea Murgian, Gorbeialdeako eta beste kuadrilla batzuetako zaleek bultzatuta, eta gaur egun 35 bazkidek osatzen dute. Urtero egiten dute ziza eta onddo erakusketa herrian, eta jarduera hori aberasteko asmoz, 2011. urteaz geroztik mikologia jardunaldiak antolatu dituzte; azkenak, joan den astean, "oso arrakastatsuak".


Elkarteko presidente Vicente Blancok Pobesetik (Añana) zehaztu duenez, 2.500 pertsonen parte hartu dute aurtengo edizioan, lau hitzaldi -horietako bat euskaraz- eta herriko tabernetan zehar antolatutako Mikopintxo ibilbidea barne.

Espezieen zerrendetan, "hutsuneak" Larunbatero mendira joaten dira Gorbeiaiko Bazterra elkarteko kideak, eta astelehen arratsaldetan 20:00etatik aurrera Murgiako Udaletxean duten egoitzan biltzen dira, bildutakoa sailkatzeko eta herritarrei ziza eta onddoak identifikatzen laguntzeko. Milaka ale pasatzen dira haien eskuetatik, eta, hori dela eta, onddoen mapa osatzeko harri-koskorra jartzeko lanean ari dira: "Arabako zizen datu base ofizialak



Alfredo Mendoza,
Baxauri elkarte
presidentea

I. ESTARRONA



**Vicente Blanco
Albes, argazkia
egiten.**

GOBEIAKO BAZTERRA

oso pobreak dira: espezieak falta dira zerrendetan, eta oso ohikoak diren zenbait mota ere ez dituzte aipatzen". Bitxikeria moduan, aipatu du gauza bera gertatzen dela beste datu base batzuetan, esaterako ornitologiari buruzkoetan: "Hain ohikoa den txolarrea, esaterako, ez da zerrenda horietako askotan agertzen, inork ez duelako inoiz argitalpen ofizial batean aipatu".

Datu base horietan agertzeko, ezinbestekoa da espezie bat argitalpen ofizial batean aipatzea, eta horretarako lan egingo dute Gor-

beiko Bazterra elkartetik. Modu horretan, espezieen mapa osatu nahi dute, ondoren hainbat mikologoren artean estatu mailan mehatxatutako espezieen zerrenda argitaratzeko. Araban, adibidez, badaude "ohikoak ez diren *cantharellus* mota batzuk, zaindu beharko genituzkeenak, dauden gutxiak desagertu ez daitezten".

Bitartean, izotza ez egitea espero dute zaleek, azken egunotako tenperatura altuek eragindako uzta ona mantendu dadin. Arabako udazkena, saski bete *onddo*.



Zuiako udaletxea, Murgian. | ALEA

Identifikazio zerbitzuak

Arabako doako hainbat aholkularitza zerbitzu daude: Murgian, Gorbeiko Bazterra elkarteak edozein tokitako herritarrei euren ziza eta onddoak identifikatzen laguntzen die astelehenero 20:00etatik aurrera Udaletxean; Asparrenan, larunbat arratsaldetan eta igande goizetan aholkularitza zerbitzua eskaintzen dute Araiako lau tabernetan (Zubigain, Bene, Casinoa eta Batzokia), azaroaren 22ra arte; Gasteizen, Manuel Iradier txangolari elkarteak zerbitzua eskaintzen du.

URRIAK 30 OSTIRALA
GLAUKOMA TA BAD SOUND

URRIAK 31 LARUNBATA
PSYCHOBILLY & PUNK MONSTERS HALLOWEEN PARTY
[LOS CARNICEROS DEL NORTE + BRIOLES + 13 BATS]

AZAROAK 06 OSTIRALA
PEIREMANS + NIRE

AZAROAK 07 LARUNBATA
RAUL ARANSAEZ ROCK FESTIVAL 2015
[THE ALLNIGHTERS + HIGHLIGHTS]

Jimmy Jazz
gasteiz **AGENDA**

**Onddo
sailkapena
Baxaurin.**

I. ESTARRONA



Euskadin, Araba izan zen ziza bilketa arautu zuen lehen lurraldea, pertsona bakoitzeko egunean bi kiloko muga jarrita; ondoren, tasa kobratzen duten onddo-barrutiak sortu dira lurraldean; horietan azkena, Arraia-Maeztukoa. **I. ESTARRONA** GASTEIZ

Arabian ere, gehiegikeriei muga

Neurrigabekeriei aurre egin eta onddo bilketa jasagarria sustatzeko, dekretua onartzen lehen izan zen Arabako Foru Aldundia Euskal Autonomia Erkidegoan, 2008an. Araudiaren arabera, pertsona bakoitzak bi kilo har ditzake gehienez egun bakoitzean, eta saskia erabili behar du derrigorrez, plastikozko poltsen aireztapen faltak eragindako indigestioak saihesteko eta, era berean, saskiaren zuloetatik esporak lurrera erori daitezten, horietatik ziza eta onddo berriak hazi ahal izateko.

Araudi horretaz harago, eta Nafarroako Ultzamako mikologia parkearen eredia jarraituz, Araban Asparrena-Apotako mikologia parkea sortu zuten duela zazpi urte Aizkorri-Aratz natur parkeko sei mendi publikoetan, aberastasun mikologikoa zaindu eta, aldi berean, turismo eta ekonomia pizgarri berria sortzeko asmoz. Onddoak eta zizak biltzeko, herritik kanpokoek lau euro ordaindu behar dituzte egun bakoitzeko, edo 50 euro urteko abonuatik; herrikoek bost euro ordaintzen dituzte denboraldi osorako. Bilduta-ko dirua Parketxea sustatzeko eta

Baimen beharrak

ONDDO-BARRUTIAK

Asparreneko mikologia parkea: herritik kanpokoek egunean lau euro ordaindu behar dituzte, edo urtean 50; Parketxean eros daiteke baimena, bai eta Asparrena eta Donemiliagako udaletxeetan, eta udalerriko tabernetan ere.

Arraia-Maeztuko barrutia: herritik kanpokoek, egunean bost euro; astebeterako, hoge; eta urte osorako, laurogei. Herrikoentzat bost eurokoa da baimena, urte osorako.

haurreskolarako erabiltzen dute.

Lautadako azterna jarraituz, Arraia-Maeztuk araudi berria abiatu du duela hilabete. Atauri izan ezik, udalerriko gainerako kontzeju guztiek araudiarekin bat egin dute (Apinaiz-Apellaniz-, Azazeta, Korres, Maeztu, Onraitia, Aletxa, Erroitegi, Sabando, Birgaragoien eta Birgarabarren, Areatza, Zekuiano, Ibisate, Leortza eta Musitu, bai eta Harana udalerriko Done Bikendi Harana herriaren zati batek ere).

Arabako Mendialdeako txoko honetako bizilagunek onddo-denboraldi osorako bost euro ordainduko dituzte eta gehienez bost kilo onddo, ziza eta fruitu batu ahal izango dituzte.

Trebiñun, ezerezean utzi zuten onddo-barrutia, kontrolerako tresnak eta aurrekontuak ez zituztelako

te; kanpokoek, aldiz, hiru kilo jaso ahal izango dituzte, hiru txartel mota erosita: egunekoa (bost euro), astekoa (hoge euro) eta urtekoa (laurogei). Kuoten bidez jasoko dutena mendiak zaintzeko erabiliko dutela adierazi dio ALEARI Anartz Gorrotxategik, Arraia-Maeztuko alkateak.

Arabako beste txoko batzuetan, Kuartangon eta Zalduondon esaterako, onddo-barrutiak sortzeko aukera aztertu dute ere. Aldiz, Trebiñuko San Martin Galvarin udalerrian 2008an araudia abiatu eta gero ezerezean utzi zuten, besteak beste kontrolerako tresnak ezartzeko aurrekontu faltagatik.

JOSEBA AZKARRAGA

SARE PLATAFORMAKO ELEDUNA Hogeita bost urte baino gehiago joan dira euskal presoei sakabanaketa neurriak ezarri zietenetik; egun, unerik "latzenetakoa" bizi dutela nabarmendu du Sare herri ekinaldiko bozeramaileak. **A. AMENABAR** GASTEIZ

"Ideologiez harago, elkartuta irmo erantzun behar dugu"

Mugi daitezten harriak goiburu hartuta, euskal presoek bizi duten sakabanaketa politikari aurre egiteko deia egingo dute Sare eta Bagoaz herri ekimenez batera, Bilbon eta Baionan, urtarrilaren 9an. "Mendeku politikari" herritarrek irmoki erantzun behar diotela uste du Joseba Azkarraga (Agurain, 1950) Sare giza eskubideen aldeko egitas-moko bozeramaileak, eta kale mobilizazioekin batera bestelako ekinaldien beharra ere aipatu; Europako instantzia politiko eta juridikoetara jotzeko lanean ari direla nabarmendu du.

Hogeita zazpi urte dira dispersioa euskal presoei aplikatzen hasi zitzaientetik. Zer momentutan dago?

Esango nuke momentu txarrenetako batean gaudela. Mendeku neurri moduan ezarri zuten, neurri politiko moduan beraz, eta ETak haren indarkeria jarduerari amaiera esan eta lau urtera ere berdin jarraitzen dugu. Mendeku jarrera horrek, noski, ez dio presoari bakarrik eragiten; familiak pairatzen du. Milaka kilometro egin behar dituzte urtean, 63.000 kilometro batez beste familia bakoitzak. Txikiak hezkuntza prozesuan ere eragiten duela antzeman dugu eta edadetu askok ezin dituzte euren seme-alabak bisitatu. Mendekua da darabilten elementu nagusia eta horren aurrean uste dugu herritarrek erantzun behar

dutela. Giza eskubideak urratzen ari dira, bai presoei eta baita familia kolektiboari; ideologiez harago, elkartuta erantzun behar dugu irmo.

Tartean, Gasteizko Jose Ramon Lopez de Abetxukoren kasua dugu.

Betidaniko laguna dut, eta bi hilean behin bisitatzen dut. Abuztuan atera

"Bertan egiten diren salaketekin batera, garrantzitsua da horiekin Europara jotzea"

"PP eroso dago; ez du pausorik emango karteletako egoera biguntzeko"

behar zen, kondena erabat bete eta gero, baina kartzelan jarraituko du ez dutelako zenbatuko Frantzia egindako espetxealdia; hori, esan beharrik ez dago, legez kanpokoa da, Europako araudia betetzen ez delako horretara behartuta egon arren. Egoera lazarria da benetan. Legea bera ez da betetzen eta gainera alderdi politiko askoren oniritzi eta isiltasunarekin. Eta, baita, hedabideen onepenez ere; jakinik legea betetzen ez dela, ez da ezer gertatzen.

Joan den igandean eskaini zuen ETBk, hain zuzen, hiru urteren ostean 'Barrua begiratzeko leihoak' euskal presoei buruzko dokumentala.

Hori utzikeriaren seinale da. Badaude uste dutenak duela lau urte ETak hartutako erabakiaren ostean arazoa amaitu dela... Eta arazoa egon bada, eta gatazkaz ari bagara eta gatazkaren ebazpenaz ari bagara ezin dugu iturburuei buruz bakarrik hitz egin, ondorioei buruz ere egin behar dugu. 470 presoen asistentzia ere gai nagusia dugu, eta aterabidea ematen ez zaion bitartean beti egongo da gaizki itxitako gatazka bat edo konpondu gabeko gatazka bat.

Joan den urtean 'Dispersioaren liburu' aurkeztu zuen Sarek, eman beharreko zenbait pauso jasotzen zituena. Geroztik, aurrera egin al da?

Guk pauso horiek ematen jarraitzen dugu. Sareren aldetik bilatu nahi dugu, batez ere, gizarte guztiaren kontzientzia zioa, ideologia politikoaren ginetik, eta sendo nabarmendu nahi dugu giza eskubideen urraketa; edozein herritarrek dituen eskubideak dira, egin duen delitua egin duela. Bide horretan antolatuta ditugu giza kateak, egunerokoan Sareko lagunak egiten duten lana eta urteari amaiera jartzen dion urtarrileko mobilizazioa. Gustatuko litzaiguke manifestazio hori egin behar ez izatea, horrek esan nahiko lukeelako egiteko arrazoirik ere ez dagoela, baina egoten diren bitar-



Joseba Azkarraga, Sarek Gasteizen duen egoitzan.

ARITZ MARTINEZ DE LUNA

tean Sare herri ekimenaren lanak berdin jarraituko du.

Aurten, gainera, Bagoaz ekimenarekin batera egin du elkarlanean Sarek?

Hori izango da hurrengo manifestazioko nobedade nagusia. Bi manifestazio batera egingo dira, Bilbon eta Baionan, urtarrilaren 9an. Iparraldean lan egiten duen taldea da Bagoaz, eta kasu honetan Frantziako alderdi politiko gehienek egin dute bat ekimenarekin, Le Penen alderdiak salbu, baita alderdi sozialistak ere. Iparraldean sakabanaketaren kontra lan egitea legezkoa bada zergatik ez hegoaldean? Eta, zergatik bertan inplikatzaren diren indarrak ez dira inplikatzaren hegoaldean? Hori da egin nahi dugun deia. Uste dut pauso garrantzitsua dela eman duguna, presoek giza eskubi-

deen alde lan egiten duten bi elkarrek batera urratsak egitea.

Europara jotzeko asmoa ere baduzue. Zein ekimen ari zarete prestatzen?

Jurista talde batekin ari gara lanean, askotarikoa, lege salbuespenen inguruko dokumentu bateratu bat prestatzeko. Ikuspuntu juridiko batetik egin nahi dugu salaketa, Europako instantzietan. Prozesuarekin aurrera egiteko moduaren inguruan ideia asko daude Saren, eta hori uste dut aberasgarria dela; batzuk uste dugu etengabe Espainiara jotzea, edo auzitegi espainoetara, denbora galtzea dela. Badakigu jarrera politikoa dagoela justizian, politika alderdikoia, eta politika justiziaren alorrean sartzen denean justizia desagertu egiten da. Horregatik uste dugu garrantzitsua dela, betiere

atzean utzi gabe bertan egiten diren salaketak, Europara jotzea; instantzia politiko eta juridikoetara jo behar da azaltzeko Europa demokratiko horretan estatukide bat zer egiten ari den. Europako instantzietara emandako pausoa berria da eta uste dut fruituak emango dituela, aurretik batzuk eman dituen moduan. Arazo bat ere badago: instantzia egin eta zazpi urte barru erantzun dezaketela. Zazpi urte horietan Espainiako gobernuaren mendekuak aurrera jarraitzen du, eta kalean egon behar luketen lagunak kartzelan jarraitzen dute.

Eta, etxean? Eusko Jaurlaritzak nahikoa pauso eman al ditu?

Ez dugu polemikan sartu nahi Jaurlaritzarekin. Batzuetan haren posizioarekin bat egin dezakegu, baina

jarrerera aldaketa bat ere gustatuko litzaiguke; euskal instituzioekin batera, indar politikoez eta baita hedabideek ere ETari pausoak emateko galdegiten dioten indar berberekin Espainiako Gobernuari galdegitea gustatuko litzaiguke. ETari etengabe pausoak eskatzeaz gainera, egin beharrekoa dudarik gabe, insistentzia bera eskatu nahi diegu Espainiako Gobernuarekin. ETak eman zuen eman zezakeen pausorik garrantzitsuena haren historian, duela lau urte. Mendeku jarrerak alde batera uzteko eskatu nahi dugu.

Justizia sailburua izan zinen aurretik, eta justizia eskatzeko elkarte batean zaude orain. Nolakoa izan da bilakaera?

Ez da aldaketa nabarmenik izan nire kasuan. Oraindik jardunbide bat dago nire kontra sailburu nintzen garaietatik, presoan senideentzako diru laguntzen dekretuagatik; egiten dituzten bidaiak duten zama ekonomikoa izan ez dezaten onartu genuen dekretua 2005ean eta familia askok erabili zuten. Patxi Lopezen gobernuak bertan behera utzi zuen, eta, zoritxarrez, haren atzetik etorri den gobernuak ere ez du berriz mar txan jarri. Orditik dago nire kontrako jardunbidea irekita, eta ez dakit zertan gertatuko den. Nire kasuan jarrerera sakabanaketaren kontrakoa izan zen lehen eta orain;



Joseba Azkarraga. | ARITZ MARTINEZ DE LUNA

giza eskubideen defentsa izan da nire zeregina eta izaten jarraitzen du, beste modu batez.

Espainiako hauteskundeak bitartean jarrerera aldaketarik sumatzen duzu? Eta, ondoren, zer jarrera izango dute alderdiek?

Hemendik eta hauteskundeetara ez dugu aldaketarik espero. Gero ikusiko dugu zeinek irabazten duen,

baina berdinek irabazten badute uste dut zoritxarrez egoerak berdina izaten jarraituko duela, egoera honetan oso eroso dagoelako Espainiako Gobernua. Badaki ETak erabaki bat hartu duela eta atzera bueltarik ez duen erabakia dela, eta beraz eroso dago posizio horretan. Eta ez du pausorik emango kartzetako egoera biguntzeko edo lege salbuespenekin amaitzeko, badakielako sektore kontserbadoreen lagapen baten moduan ulertuko dutela. Erosotasun horretan ederki daude. Asko poztuko nintzateke eurek jarraituko ez balute, eta gutxieneko aldaketa bat izango balitz, itxaropen zirrikitu bat izateko egoera aldatzeko.

Sareren jarduera ikertzeari ekin zion Auzitegi Nazionalak uda aurretik. Zertan da prozedura?

Prozedurak aurrera jarraitzen du. Jarrerera horren lehen zantzua Sareren dirua konfiskatu zutenean ikusi genuen, urtarrileko mobilizazioaren ostean. Errekurtso bat jarri zen, baina tramitea poliki doa... Espainiako justizia ezagututa, uste dugu tamalez ulertzen jarraituko dutela elkartasuna ere "delitua" dela. Bere garaian Garzon epaileak izena eman zion kontzeptu horrek –"Dena ETA da"– alor guztiak irentsi ditu. Presoen egoerarekin solidario izatea ez da delitua.

AIXKIRIA AEK ALKARTETXEA ARANA AEK ARMENTIA IKASTOLA

TOKI EDER ESKOLA ZADORRA AEK

ESKATU SASKIA AZAROAREN 8A BAINO LEHEN

**HARTU
ETA
EMAN**

Hartu saskia 50€ren truke **ERRIGORA** Eman euskalgintzari %25



Ardi latxa esne gordinez egindako gazta da SeleQtia markakoa. DANIEL FERNANDEZ

lazgo salmenta kopurua bikoiztu nahi du Eroskik. D. FERNANDEZ

Erronkari jatorri izeneko SeleQtia gazta aurkeztu du Eroskik

Produktua sustatzeko hitzarmena sinatu dute Eroskik, Nafarroako Gobernuak eta Erronkari jatorri izenak; bertako produktuen kontsumoa bultzatu nahi du kooperatibak. ERREDAKZIOA-EROSKI

Ekonomia jasangarria eta elikadura osasuntsua bultzatzeko ezinbestekoa da bertako produktuak kontsumitzea. Are gehiago, produktuok zalantzan jar ezin daitekeen kalitatea badute. Elikagai horietako adibide ezin argiagoa Erronkari jatorri izen babestuko gazta da. Gazta hori sustatzeko asmoz, hitzarmena sinatu dute Eroskik, Nafarroako Gobernuak eta Erronkari Jatorri Izen Babestuaren Kontseilu Erregulatzaileak. Eroskik iragarri du iaz saldu zuten kopurua bikoiztu gura dela. Hala, 40.000 kilotik gora saltzeko asmoa du.

Horretarako, Eroski SeleQtia Gourmet marka aurkeztu dute. Izen horrekin merkaturatuko du kooperatibak gazta hori.

Erronkari jatorri izeneko SeleQtia gazta ekoizten duen Larra Gazten zuzendaria da Mikel Arnarez. Hark azaldu ditu gazta horren ezaugarriak: "Ardi esne gordinez egindako gazta da, osoki naturala eta latxa arrazako ardiak jertziz egin. Ardiok Nafarroako Pirinioetako la-

rreetan bazkatzen dute". Eroski SeleQtia marka propioaren barnean, kalitate handiko produktuak saltzen ditu kooperatibak. Osagai, aldaera, arraza, jatorri eta errezeta onenekin eginda daude. Metodo tradizionalak ematen duten zapore berezia daukate, eta dastatzailen adituen bermea dute.

Jatorri izena, 1981tik

1981ean eskuratu zuten Erronkariko gaztak jatorri izena. Ardi latxa eta ardi nafarren esne gordinez egiten da. Hura ontzeko lau hilabete behar dira. Erronkaribarreko gaztandegietan ekoizten da, eskusiboki. Azal naturala du, gogorra, zakarra, urintsua, eta arre edo lasto kolorekoa da. Mamiari dagokionez, gogorra eta zulotxoduna da, begirik gabea. Usain eta zapore bereziak ditu. Pixka bat mina da, eta zuri-horixka moztean. Reyno Gourmet markak babesten du, gainera. Zigilu hori Nafarroako kalitate ziurtagiria duten nekazaritzako produktuek daukate.

Joan den astean sinatu zuten hitzarmena hiru

erakundeek. Ekitaldian bertan Eroskiren hipermerkatuetako Nafarroako zuzendari Anabel Zarikiegik azaldu zuten euren asmoa: "Hala Eroskik nola Intia-Reyno Gourmetek interes komuna dugu Nafarroako produktu autoktonoak sustatzeko eta garatzeko; betiere, oso aniztuna den elikagaien sektore honen alde eta kontsumitzaileen aukera askatasunaren alde".

laz, Erronkari jatorri izeneko 20.000 kilotik gora gazta saldu zituen kooperatibak. "Gure helburua da merkaturatutako bolumena bikoiztea eta gazta honen kalitatea ikusgarriago egitea, kontsumitzaileek Nafarroako produktu honi merezi duen balioa eman diezaioten. Izan ere, ekarpen handia egiten die gure kultura gastronomikoari, ekonomiari eta paisaiari".

Nekazaritzari ekarpena

Nafarroako Gobernuak ere pozik hartu du hitzarmena. Isabel Elizalde Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio sailburua da. Erronkariko gazta sustatzeko

bidea emango duela sinetsita dago: "Nekazaritzako elikagaien sektore profesional, lehiakor eta estrategiko baten aldeko apustuaren parte da akordio hau. Era horretako ekintzekin, pauso bat gehiago ematen da Eroskiren eta Reyno Gourmeten lankidetzan. Horien ekarpena handia da Nafarroako nekazaritza elikagaien garapenean eta sustapenean".

Antzeko iritzia du Patxi Zalba Erronkari Jatorri Izen Babestuaren Kontseilu Erregulatzaileko presidenteari: "Hitzarmenak Erronkariko produktuak sustatzen ditu. Balioa ematen die beren ezaugarri gastronomikoei, kulturalei eta tokiko ekonomian garapenari".

Elizaldek uste du kalitatezko produktu hori kontsumitzeko gizartea sentibilizatzeko beharra dagoela, Erronkariko gazta bezalako kalitatezko produktu bat kontsumitzea, bertako lanpostuei eusteko modua izateaz gain, bertako herriak eta paisaiak bizirik mantentzen laguntzeko modua ere badelako.

IRATI ICIAR
UEU-KO LANGILEA



Beste mundu bat

Mutil eder bat traje beltza janzten. Neska eder bat soineko gorri zoragarri batekin. Etxe aberatsa ate beltzekoa. Antzerako etxea ate gorriduna. Mutilak auto *vintage* kabriolet beltzera salto egiten du. Neska auto gorri berdintsuan sartzen da. Mutila festara iritsi da. Neska bere atzetik sartu eta

begiratu sentsuala bota dio. Neska –soineko gorri zoragarri arina airean duela– teilatura igo da, hiriko gaueko argiak atzean dituela, mutila hurbiltzen zaio. Besarkada". Iragarki bat da bai, eta liluratu-

"Urrundu zaitez zure ingurutik eta emaiouzu tregoa zeure gogoari"

ta nauka. Ez dakit zer den, baina nigan sekulako eragin onirikoa dauka.

Itzarrrik amestearen beharrezkotasuna aldarrikatu nahi dut gaurkoan, are gehiago, amets egitearen efektu profilaktiko eta osasuntsua. Urrundu zaitez zure ingurutik eta emaiouzu tregoa zeure gogoari, segundo gutxi batzuk nahikoak dira. Ez dut maius-kulako Ametsak esan nahi, ez dira zure bizitza mugitzen duten nahi, xede, gurari edo utopia horiek, ez, amets erraxagoak, txikiagoak, gertuagoak dira nik proposatzen dizkizudanak. Abiatu inguruan duzun horretatik eta asmatu ezazu zure "pelikula".

Hainbeste arazo, eginbehar, ordutegi eta bestelako lastreekin, gure gogoari libertimendu apur bat eman behar zaio, giharrei kirola bezala, buruari imaginazioa eta horretan aritzeko denbora apur bat. Ezin dizuet esan nola egin, ezta zer amestu ere... orain bertan teklatuko letrak ere ez ditut ikusten, badoa nire burua, kabriolet beltza ziztu bizian gidatzen.

IÑAKI LARRAÑAGA
KAZETARIA



Alderantziz

Euskarari buruz erderaz egitea litzateke ideala, eremu publikoan. Araba Euskaraz espainolez idatzi, eta Mintzalagunaz irratian beste hainbestean. Bestela ez ote garen gehiengo baten aurrean interferentzia diskretu soil bat. Minorizatuei utzi behar zaien esparru onargarri bat. Itxurazko sentiberatasunez

baimendutako txoko hertsia autoerreferentzial bat. Eta, oro bat, interesik gabekoa euskal komunitatetik kanpo. Iritzi hau, jakina, ezin da beste baldintza batetik askatu, ez bada

"EITBren irizpidea: elkarrizketatuaren hizkuntza hautua errespetatuko dute"

harakiri bihurtu nahi.

Txanponaren bestaldean dago euskaraz egitea, ulertzeko, eguraldiaz eta trafikoaz; erabilgarriaz. Anekdotari hasi-folklorikotik behar bat sorraraztera. Badago nondik jo. Adibide bat, komunikabideei dagokiona.

EITBren irizpidea da: elkarrizketatuaren hizkuntza hautua errespetatuko dute kazetariak. Beste modu batera esanda, euskara hutsean egin eta komunikabide publikoaren irratit-telebista kate guztietan horrela agertzeko eskubidea dugu. Noizbait aukera baduzu, aprobeixatu! Automobilaren bujiak aldiro aldatzearen beharraz bada, askoz hobe.

Bide batez, gogoratu nahi nieke, udal eta foru ordezkarari politikoki berriei, haiek ere badutela eskubide hau ez ezik, betebeharrak. Eskatuko nieke Euskara Planekin koherente diren irizpideak erabiltzeko prentsaurrekoetan. Euskoproto-kolotik haratago gaztelania lehenesten badute, erdalgintzan dabilta eta.

BABESTU ITSASEGIAREN ZINTA



SAREAN

#Txerrikiak

Haragi prozesatuak minbizia eragiten duten gaien zerrendan sartu du IARC Minbizia Ikertzeko Nazioarteko Agentziak; haragi mota honen kontsumoa "arrisku mailaren handitze txikiarekin" lotu dute adituek. **A.AMENABAR.** @anamenabar GASTEIZ

**Imanol Magro** @Imagreto

Egin barre, baina ikusiko duzue Santo Tomas eguna legez kanpo uzten dutenean...

**Jon Altza** @kokoteko

Gaur, meriendatzeko, txoizo pamplona! #walkingonthewildside

**(S)iria** @IriaEpaltza

Txerrikiak minbizia ei dakar. Osasuneko aurrekontua jaisteak min biziagoa dakarrelakoan nago #txerrikiakordainetan

**Santi Leone** @ororostorm

Baina kebab-a osasungarria da oraindik, ezta?

**Beñat Irasuegi** @birasuegi

Txarkuteria gabe ez dut bizi nahi #HonainolritsiGara

**Idoia Torregarai** @bootxo

Nire aitaren/amaren etxea txistorrarenik defendatuko dut #TxistorraFacts

**Mikel Pagadi** @MikelPagadi

Txistorra by Philip Morris .

**Eneko Fernandez** @enekogara

Errazagoa izango litzateke topatzea zerk ez duen minbizia sortzen plastikozko mundu kutsatu honetan.

GUTUNAK

Sakamantekas, ogroak eta umeak

URTZI REGUERO GASTEIZ

Aita izatean gauzak aldatzen dira, tartean irakurgaiak. Tira, aldatu baino, gauza berriak irakurtzen hasten da umea nola ondo hazi ikasteko. Orduan irakurtzen du Frantzian umeak lokartzeko beldurrezko ipuinak erabiltzen dituztela. Gauean pertsianak itxita daudela entzuten den soinua ez da haizeak zuhaitzak mugiaraztean ateratzen duena, ogro bat omen dabil kalean lokartu ezin daitezkeen umeen bila, bahitu eta jateko. Euskal Herria

ez da atzean geratzen, ezta Gasteiz ere, gisa honetako istorioak kontatzerakoan. Ezaguna da Anbotoko Marik bahitu zuen neskatxoaren kondaira bere amak agindutakoa bete ez zuelako. Frantzian ogroa dena Sakamantekas da Gasteizen. XIX. mendeko hiltzaile ezaguna loak hartu ezinda dauden umeen bila ibiltzen omen da. Ondorioa argia da: beldurra erabiltzen da umeekin nahi dena lortzeko. Baina benetan nahi ditugu umeak beldurrean oinarrituta hezi?

Ez nuen gai hau hona ekarriko azken asteetan deigarri

iruditu zaizkidan bizpahiru kasu ikusi ez banitu. Guztiak izan dira semearekin Gasteizko parkeren batean nengoela, eta guztietan gurasoak bere semea edo alaba zigortzen zuen, itxura batean txikikeriak diruditen gauzengatik. Umeak fruta lurrera bota duela eta zigortzea baino ez ote da hobe zergatik egin duen galdetzea? Agian esango digu ez duela goserik edo ez zaiola sagarra gustatzen; zergatik, beraz, behartu nahi ez duena jatera? [...]

Oro har gizarte sistema honen aurka eta eredu berri baten alde borrokatzen dugunok, behartuta

gaude etxean ere kapitalismoaren izurriekin bukatzea. Egia da langileok, langabetuok, ikasleok presio handia dugula, areago krisiaren ondorioz; hori dela eta, askotan ahulenean, hau da, umeekin ordaintzen ditugu frustrazioak. Etorkizunean trauma sakonik ez duten pertsonak hezteko lehen pausoa da umeak subjektu direla onartzea eta ez gure objektutzat hartzea.

Parte hartzeko:

erredakzioa@alea.eus
Gehienez, 1.500 karaktere. ALEAK eskubidea du gutunak laburtzeko eta HIRINET. NET-en elkarbanatzeko.

ARABAKO KUADRILLAK

GASTEIZ

ETXEBIZITZA



Pisuan egiten dituzten konponketen kostua hileko errentatik deskontatuko diete errentariei, proposamena aurrera ateraz gero. | ALEA

Etxebizitza hutsak, berritze lanak egitearen truke

Gasteizko Ensanche 21 udal enpresak hutsik dituen 62 pisu konponketak egitearen truke eskaintzeko aukera aztertuko du

ITSASO ESTARRONA

GASTEIZ

Zenbaki gorriek jota, eta eraikin gehiago altxatu beharrean pisu zaharrak birgaitzeko asmo berriari helduta, Gasteizko 62 etxebizitza huts berritze lanak egitearen truke eskaintzeko aukera jarriko du mahai gainean 21 Zabalgunea udal enpresak (Ensanche 21).

Errekaleor, Aretxabaleta eta Olarizun dauzkan 371 pisuez gain, erabili gabeko beste 87 etxebizitza ditu 21 Zabalgunek, ia sei milioi eurotan baloratuta eta urtero mantenu gastu handiak eragiten dizkionak.

Pisu horietatik 25 egoera onean daude, eta zuzenean alokatzeko aukera

aztertuko du. Gainerako 62 etxeek, aldiz, berritze lanak behar dituzte: 46 oso egoera txarrean daude, bost egoera kaskarrean, zazpi erdipurdikoan eta lau konponketa txikien beharrean. Etxebizitza huts horiek gehienak Alde Zaharrean daude, Hedegile kalean (*Correría*), Errementarin (*Herrería*) eta Barnekale

Berria Juduen Kalean (*Nueva Dentro*).

Errentatik deskontatuta

Bertan biziko diren errentariek pisuak zaharberritu beharko dituzte. Berrikuntza horretan gastatuko dutena, bere diru-sarreraren arabera ezarritako hileko errentatik deskontatuko diete.

371

ERABILI GABEKO PISUAK

Alokatu nahi dituen 87 etxebizitzetaz gain, beste 371 pisu ditu 21 Zabalgunek Errekaleorren, Olarizun eta Aretxabaletan.

Mariturri auzoan, erabili gabeko 78 garaje plaza ditu udal enpresak

Hori proposatuko du PSEk udal enpresaren administrazio kontseiluan, eta aldaketarik ezean, ordezkarien gehiengoaren babesa izango du, EAJk, EH Bilduk eta Hemen Gaudek (Podemos) komunikabideetan euren oniritzia adierazi dutelako (Irabazik ez du

ordezkapenik 21 Zabalgunean). PPreñ jarrera oraindik argitzeke, gainerako indar politikoez gehiengo osoa lortuko lukete euren botoekin. Edonola ere, 21 Zabalgunea enpresako administrazio kontseiluan eztabaidatu behar dute orain proposamena, alderdien ekarpenak barne.

Jabetzak salgai

Etxebizitzak bakarrik ez: garajeak ere hutsik ditu 21 Zabalgunek. Gasteizko Mariturri auzoan, esaterako, 78 plaza ditu erabili gabe, eta horiek ere alokairuan ateratzea proposatu dute sozialistek. Testuinguru horretan, Gorka Urtaran alkateak ondasunen mapa bat osatzeko eskatu dio udal enpresari, jabetza horietako batzuk saldu eta Udalarentzat dirua lortzeko. Hain zuzen, 21 Zabalgunek hogeimiloi euroko mailegua eskatu dio Kutxabanki, Gasteizko Udalarekin zuen zorra kitatzeko.



Errekaleor Bizirik-eko lagunak, liburutegian. | S. FDZ. DE ARANGUIZ

Errekaleorreko gazteei, gizarte-alkairu proposamena

Dagoeneko bi urte pasa dira lehenengo gazteak Errekaleor auzoko etxebizitza hutsetan sartu zirenetik. Gaztetxea, liburutegia, zinema, auzo-baratza eta oilotegia sortu dituzte orain arte, besteak beste, Errekaleor Bizirik proiektuko kideek. Testuinguru honetan, Gorka Urtaran alkateak eta Alvaro Iturrutxa udal gobernuko ordezkariak proposamen berria egin zieten auzokide berriei urriaren 13an: Aretxabaletan Udalak hutsik dituen etxebizitzetara joatea, eta errenta bat ordaindu ordez pisu horien berritze lanak egitea. Oraingoz, Errekaleor Bizirik-ek ez du proposamenaren inguruko erabakirik plazaratu. Bitartean, auzoan bizitzen jarraitzeko aukera zabaldu zien azken epaiak, Udalak bertan hirigintza-proiekturik gauzatu arte.

TURISMOA

Turismo arduratsua aztertuko dute Europa jauregian

Nazioarteko 200 aditu eta eragile baino gehiago elkartuko dira Gasteizko jardunaldietan, azaroaren 26an eta 27an

A. AMENABAR @anamenabar

GASTEIZ

Turismoa jasangarri izan dadin, gako garrantzitsuenak mahai gainean jarri eta aztertzeko jardunaldiak egingo dituzte Gasteizen, azaroaren 26 eta 27an. Gai hauek aztertu eta Turismo Jasangarriaren Gutuna berritzeko asmoz, nazioarteko 200 eragile baino gehiago elkartuko ditu Europa jauregiak.

Sei zutabe nagusiren inguruan arituko dira adituak: ondare amankomu-

naren zaintza, turismoa eta bioaniztasunaren arteko aliantza, turismoa eta klima aldaketaren arteko lotura, tokiko komunitateen garrantzia, etorkizun iraunkor baten aldeko aliantzak eta berrikuntza. Era berean, Gasteiz hiria bera izango da jardunaldietako bi solasaldiren protagonista; Gasteiz Etorbidea eta Europa jauregiaren berritzapen prozesuari buruz arituko dira horietako batean, eta 2012ko Europako Hiriburu Berdea



Europa jauregiaren berritzapen prozesua aztertuko dute. | ALEA

izendapena izango da hizketagai beste batean.

Nazioarteko jardunaldiok aurkeztearekin batean, Gasteizen turismo arduratsua egin dadin ahalbidetzeko lehenengo pausoak aurkeztu zituen astelehenean Gorka Urtaran alka-

teak eta Gasteizko Udalaren Konpromiso Gutuna sinatu zuen, Biosphere egiaztagiria lortzeko bidean. "Turismoa kontsumo ekintza bat baino gehiago dela uste dugu, ingurumen eta aniztasunarekiko ardura oinarri duena".

Kalabazak Aiaraaldean, Halloween amerikarra heldu baino lehen

Domu Santu Eguna-rekin lotuta, hainbat ospakizun eta ohitura zeuden eskualdean

AITOR ASPURU SAEZ

LAUDIO

Domu Santu bezperan, urriaren 31n hain zuzen, hainbat ume aterako dira kalera mozorrotuta Halloween ospatzera, “sari edo ziri” oihukatuz. Jende askok Estatu Batuetako kolonialismo kulturalaren itzala ikusiko du jarduera horretan, baina baita hemengo ohituren isla ere.

Horien artean Jose Luis Fernandez Zurbitu dago. Artziniegako Etnografia Museoko kide horrek 70 urte ditu. Bere ustez, Halloween jaiak ordezkatu ditu hemen zeuden ohiturak: “Umeak ginenean, urriari, Domu Santu Eguna hurbiltzen zenean baratzetara jotzen genuen eta kalabazak hartzen genituen. Goitik moztzen genituen eta hustu ostean begiak eta ahoa egiten genizkien kandela barruan sartzeko. Frontoiaren aurrean zegoen horma baten gainean hiru jartzen genien”.

tuen eta oso beldurgarria zen”.

Artziniegarrak ez du gogoratzen zergatik egiten zuten. “Ziurrenik ume nagusiak ikusi genituen hori egiten eta kopiatu egin genuen”. Hala ere, Zurbituk uste du ohitura hori garaia-ri eta Domu Santu Eguna-ri lotua zegoela: “Urte horietan herrian lau argi zeuden eta iluntasunari eta hilerriari beldurra genien, bat-batean kalabazak horiek ikusteak eragin handia zeukan”.

Zentzu horretan, ezberdintasun handia sumatzen du Halloween eta Domu Santu edo Arimen Eguna-ren artean: “Egun horiek ez ziren jaiak. Umeak ez ginen ateratzen kalera gauez, gehienez gizonak joaten ziren taberna-
nara. Kalabazak eta izarrak ere

erabiltzen ziren jendea izutzeko baina oso txantxa astunak ziren. Behin, broma horren baten ondorioz pertsona batek eroetxean bukatu zuen”.

Arimen gaua ospatzeko, Artziniegako Museoa bisitatu gidatu berezia egingo

Laudion, zinegotziek hilerrian zin egiten zituzten karguak

dute urriaren 30eko gauean. Dena den, kalabazen ohitura ez zen Artziniegakoa bakarrik. Anuntxi Arana Luiaondoko antropologoak antzeko pasadizoak berreskuratu ditu bere herrian zein Orozkon. Lortutako testigantzek ziurtatzen dute kalabazen bitartez jendea izutzeko saiakerak egiten zirela.

Baina, hori bai, Aranak ikertutako gertakariak ez zuten

den Domu Santuari lotuta. Deskribatutako pasadizoetan beldurrak sorginetan zeukan sorburua. Kondaira baten arabera, Garizuman erabiltzen ziren kalabazak herritarrek belduru asmoz, baina ikarak sorginekin zeukan harremana, ez hildakoekin.

Hildakoak

Halloweenek “All Hallows’ Even” –Domu Santu Eguna bezperan ingelesez– jai kutsua hartu du Estatu Batuetako kulturaren bitartez, eta egun aratuesten antza gehiago dauka Arimen Gauarena baino. Hala ere, antzina hildakoen omeneko data zen Domu Santua, eta gozatzeko grina azaleratzeko baino heriotza presente izateko eguna zen, gertuko hildako pertsonak gogoratzea, alegia. Jende ugari hilerria joaten zen bere senideak edo lagunak oroitzera. Ohitura hori oraindik errota dago hainbat jenderen artean eskualdean.

Hildakoen eta arbasoen arteko lotura bereziki adierazgarria da Laudion. San Migel egunean alkatea hautatzen bazen, zinegotziek hilerrian zin egiten zituzten euren karguak, bere arbasoen eta herriko hildakoen aurrean. Natxo Urkixo alkateak horren aztarnak topatu ditu udal aktetan. Ohitura XVI. mendetik XIX. mendera arte egon zen indarrean.



Arratzua-Ubarrundian ere prest daude larrialdi kasuei aurre egiteko

Duranako Sologana gizarte etxean desfibriladorea jarri zuten larunbatean, eta hori erabiltzen ikasteko saioa egin zuten

MIRIAN BITERI

DURANA

Norbaiti eztarria trabatuz gero nola jokatu, bizkortze kardiopulmonarra nola egin edo desfibriladorea zelan erabili ikasi zuten pasa den larunbatean Duranako Sologana gizarte etxean elkartutako 16 lagunek.

Arratzua-Ubarrundia-ko Udalak desfibriladorea erosi du, eta larunbatetik erabilgarri dago esandako gizarte etxeko kantxako sarreran, larrialdi kasuetan edonork erabili dezan. Udalak 1.300 euro inguru bideratu ditu inbertsio horretara.

Plazak jarraian bete

Desfibriladorearen erabileraz aldera, ikastaro praktikoa egitea pentsatu zuten; asmatu egin zuten, azkar bete egin



Larunbatean egindako saioa. | ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

ziren-eta saio horretan parte hartzeko eskainitako plazak. Erizain baten laguntzarekin, desfibriladorea zer den eta nola erabiltzen den ikasi zuten. Besteak beste, salbazio maniobrak

egin zituzten parte-hartzailerik, panpina eta gainera-ko partaideen laguntzarekin; modu horretan, hainbat pausu simple erabilia, pertsona baten bizitza nola salbatu ikasi zuten.

Arratzua-Ubarrundia-ko alkate Blanca Anteparak ikastaroaren garrantzia azpimarratu nahi izan du: "Ezinbestekoa izan beharko litzateke larrialdi kasuen aurrean zelan jokatu jakitea. Aurrerantzean badakigu zer egin behar dugun eta horrelako egoera batean arduraz jokatu beharko dugu, derrigorrez".

Horrekin batera, nabarmendu du Sologanatik egunero 1.000 lagunetik gora pasatzen direla, eta hortaz, beharrezkoa dela bertan desfibriladorea izatea. Horren harira, honakoa adierazi du: "Ikasbidea ikastolakoak Sologanara joaten dira gimnasia egitera; kontuan izan behar dugu 1.200 ikasle daudela han. Nahiago inoiz erabiltzen ez bada, baina badaezpada hor dago".

KULTURA

Martxan da eskualdean 'Azaro bat sormenaz' zikloa

Lau sortzaileri elkarrizketa publikoa egingo diete lau herritan

M.B.

MURGIA

Gorbeialdeako Kuadrillako Euskara zerbitzuak *Azaro bat sormenaz* izeneko zikloa antolatu du datozen lau ostegunetarako. Eskualdeko kultura esparruan lanean ari diren lau sortzaileri elkarrizketa publiko bana egitean datza esandako ekimena.

Hain justu, Aramaioko Xabi Igoa bertsolariak,

Izarrako Jose Cruz Gurrutxaga aktoreak, Etxebarri-Ibiñako Unai Lobo musikariak eta Ollerietako Blanca Gomez de Segura artisauak bere lanaren atzean dagoenaz jardungo dute; agertokira igo baino lehen, alde zurretik egiten dutena azalduko dute.

Legutioko, Urkabustaizko, Zigoitiko eta Aramaioko kultura etxeetan izango dira elkarrizketak.

Egitaraua

AZAROAK 5

19:00: Xabi Igoa Legutian.

AZAROAK 12.

19:00: Jose Cruz Gurrutxaga Izarran.

AZAROAK 19

19:00: Unai Lobo Zigoitian.

AZAROAK 26

19:00: Blanca Gomez de Segura Aramaion.

KIROLA

Mikel Landa txirindulariarekin topaketa izango da

Urkabustaizko Gazte Asanbladaren eta Lan eta Jolas elkartearen eskutik, Mikel Landa txirindulariarekin berba egiteko aukera izango dute ostiralean, hilak 30, Izarrako kultura etxera joaten direnek. Topaketa 20:00etan hasiko da.

Ziklista murgiarren denboraldi bikaina egin du aurten; Italiako Giroan eta Espainiako Vueltan egindakoa da horren lekuko.



Jatorriz gernikarra eta duela zortzi urte Barrundiako auzokidea, Arantza Arrien Goitiandia da zuku-makinariaren arduraduna. | ITSASO ESTARRONA

Bertako sagarrekin, 11.000 litro zuku

Herritarrek euren sagarrondoan uztari probetxua ateratzeko zerbitzua abiatu du Ozetak

ITSASO ESTARRONA @itsasoestarrona
OZETA

"Halako beste urte bat ez da luzaroan egongo. Maizta-ekaineko loraldian eguraldi ona egin zuen, eta itzela izan da sagar-uzta". Ozetako sagar-zuku zerbitzu berrian lanean ari dela mintzo da Arantza Arrien Goitiandia, makinariaren arduraduna. Irailaren 7an Barrundiako Udalak tresneria berria martxan jarri zuenetik, 14.300 kilo sagar jaso eta 7.600 litro zuku ekoiztu ditu (kilo bakoitzeko, litro erdi), eta azaroan beste 7.200 kilo sagar zukutzeko txandak eman ditu, beste 3.600 litro botilaratzeko; guztira, beraz, 11.000 litro

ekoiztuko dituzte Arabako herrian, "sagar barietate askotakoak".

Hiru mila euroko aurrekontuarekin (2.750, zehazki), birringailua, prentsa eta bi pasteurizatzaile jarri dituzte Ozetako kiroldegia-eremuan, Aramaion (Gorbeialdea) eta Gaubean (Añana) martxan jarri dituzten proiektuen ildo berean.

Barrundia udalerriko hamahiru herrietako auzokideek dute makina erabiltzeko lehentasuna, baina beste edozein herri-iritsitakoek ere erabili dezakete. Orain arte baliatu dutenen artean, 36 bertakoak ziren, eta zazpi kanpokoak, tartean Legu-

tio, Araia eta Argomani-zetik iritsitakoak.

Txandak beteta

Arantza Arrien gernikar arabartua astelehen, astearte, ostiral eta larunbatetan egoten da zuku-makinari lanean, eta azaroaren 14ra arteko txanda guztiak bete-ta ditu dagoeneko. ALEARI azaldu dion moduan, sei orduko azaldu izaten da zukua egiteko txanda bakoitza, eta erabiltzaileek ere prozesuan parte hartzen dute: lehenengo sagarra birringailura botatzen dute, ondoren prentsan zapaldu eta, azkenik, hiru orduz uzten dute pasteurizagailuan. Badago ere zukua baino, sagardoa nahiago duenik. Horiek, sagarraren ura pasteurizatu beharrean upeletan sartu eta etxera eramaten dute, irakiteko.

Etxera eramaten duten litro bakoitzagatik euro bat ordaindu behar dute erabiltzaileek: erdia, arduradunaren lana ordaintzeko; eta gainerakoa, botila (35 zentimo) eta gastu orokorrenagatik.

"Egunero laurehun kilo sagar zuku egiten ditugu, sei orduko txandatan"

ARANTZA ARRIEN GOITIANDIA
SAGAR MAKINAREN ARDURADUNA

43

HERRITAR

Orain arte, Barrundia udalerriko 36 herritarrek eta kanpoko beste zazpi erabili dute zerbitzua.



Hitzaldiez gain, bestelako ekintzak ere egiten dituzte; tartean, musika saioak. | ALVARO ALBAINA

Mendialdeako nagusiak hasi dira Urarteko gizarte etxean astero batzen

Abenduaren 18ra bitartean, hitzaldiak, ikuskizunak, zinema eta irteerak egingo dituzte

MIRIAN BITERI

URARTE

Martxan da berriro Arabako Mendialdeko hirugarren adinekoen elkartegia. Ostiralean, hilak 30, inauguratuko dute ikasturte berria Urarteko gizarte etxean. Larunbatean, hilak 31, bertan emango diote hasiera, Gasteizko eraztun berdeari buruzko ikus-entzunezkoarekin. Patxi Sanchez-Dehesa argazkilariak ingurune berezi horretako zehetasunak emango ditu.

Hortik urtea amaitu bitartean, askotariko jarduerak izango dituzte eskualdeko nagusienek astean bi bider, asteazketan eta ostiraletan. Gehienak hitzaldiak izango badira ere, magia ikus-

kizuna, zinema, bakarrizketa eta irteera ere egingo dituzte Gabonak arte.

Askotariko jarduerak

Arabako Mendialdea Kua-drillako Kultura eta Kirol teknikari Alvaro Albainak azaldu du hitzaldietan askotariko gaiak jorratzen saiatzen direla, hala nola, inguruko tokiei buruzkoak, historia eta artearekin lotutakoak edo hirugarren adinekoentzat garrantzitsuak diren kontuak. Azken horren harira, Urarteko gizarte etxeak hartuko dituen berbaldien artean, dependentzia eta autonomia pertsonalerako legearena dago, edo gizarte-ongizatea mantentzeko gakoena. Horrez gain, abenduaren 18an, Gastei-

zen emango dute egun osoa; Arabako gainerako hirugarren adinekoen elkartegiekin elkartuko dira, eta hiriburua bisitatu ostean, bazkaria izango dute guztiek batera.

Helburu bikoitza

Albainak nabarmendu du urteak daramatzala funtzionamenduan Mendialdeko elkartegiak; Arabako "zaharretarikoa" dela ere aipatu du. Horren helburua bikoitza dela ere esan du: alde batetik, sakabanatuta dauden herrietako bizilagunak batzea bilatzen da; eta bestetik, nagusien artean, kultura eta aisialdi jarduerak sustatzea. Urarten egiten diren ekintza guztiak 17:00etan dira.

Egitaraua

AZAROA

6: 'Arte y belleza en Paris' hitzaldia.

11: 'Presentación Kuartango ayer y hoy' berbaldia

13: Magia ikuskizuna.

18: 'El vino, compañero de viaje' hitzaldia.

20: Zinea Gasteizen.

25: 'Ley de promoción y autonomía personal y atención a personas dependientes' hitzaldia.

ABENDUA

2: 'Reir para vivir mejor' bakarrizketa.

4: 'Son realmente peligrosos los cultivos transgénicos' hitzaldia.

9: 'Rincones del pasado' hitzaldia.

11: 'Claves para mantener el optimismo y bienestar social' hitzaldia.

16: 'Las islas Galapagos, infierno y paraíso' berbaldia.

18: Irteera kulturala Gasteizera, Arabako hirugarren adinekoen elkartegiekin.



Zabalateko gazteluaren inguruan telebista saio bat egiteko programa pilotua grabatu zuten iraila amaieran. | LIBE FERNANDEZ TORRONTEGI

Salbatu zure gaztelua

Zanbranko Zabalate gazteluaren inguruko telebista saio baterako proiektua aurkeztu dute Donostia 2016ko Prime Time deialdira; 2013an desagertzeko zorian zegoen monumentu multzoa, baina lehengoratzeko lan sendoa egin du Udalak bertan

ESTITXU UGARTE
ERRIBERAGOITIA

Zabalateko gazteluaren inguruan Zanbranko herritarrek eta Udalak berak egin duten lana ez da oharkabea pasatuko. Ez behintzat Uruguai eta Euskal Herriaren arteko telebista koprodukzio batek Donostia 2016ko Prime Time deialdia irabazten badu. *Salbatu zure herria* izena du doku-realityak eta lehen saioa Zabalaten grabatu zuten, irailaren amaieran.

Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburua Fundazioak abian jarri du

Prime Time proiektua. Helburua da Europako balioei eta kulturari buruzko telebista-formatu original onena hautatzea eta ekoiztea, ikusle gehien biltzen dituen orduetan emateko; gainera, nazioartean ere emateko modukoa izan dadin nahi dute. Hilaren 10ean amaitu zen deialdiaren epea eta Zanbranko biztanleak eta telebista saioko arduradunak erabakiaren zain daude.

Ebazpena edozein izan da ere egitasmoak aurrera egingo du eta *Salbatu zure herria* programaren lehen kapitulu osoa Zabalateko

gazteluan grabatuko dute aurki. "Ondarearekin kon-

Uruguai eta Euskal Herriaren elkarlanari esker grabatu dute telebista saioa

prometituta eta harro dagoen herri bat behar genuen lehen kapitulu egiteko eta kasualitatez jakin izan genuen Zanbranan egiten ari diren lana. Ondarea nola kudeatu duten ikusi genuenean liluratu ginen". Libe Fernan-

dez Torrontegi arkitekto, blogari, ekintzaile eta ondarearen hedapenean adituak azaldu ditu egitasmoaren nondik norakoak.

Fernandezek kudeatzen duen *reharq.com* blogarekin batera egitasmoan parte hartu dute Uruguai-ko OZ Media produktorak eta RSTE enpresa sozialak. Gainera, Unesco Etxearen eta EHUko Eraikitako Ondarearen Ikerketa Taldearen babesarekin.

Libe Fernandezek azaldu duenez, Negobide enpresen elkarrearen bitartez Montevideora egin zuen bidai batean sortu zen tele-

bista saioa egiteko aukera. OZ Media produktorekin bilera bat izan zuen eta proposatu zioten haren blogaren edukien inguruan telebista saio bat egitea. "Ondarearen hedapenerako telebista formato apurtzailea egin nahi dugu, eduki

Egitasmoak eragin duen kohesio soziala nabarmendu dute Uruguin

erakargarriak eskainiko dituen eta ondarea babesten eta kudeatzen duten tokiko eragileekin harremanetan egingo dena".

Zabalaten aurkitu zuten programa pilotua egiteko toki eredugarria. "Montevideoko bilera hartan Unesco Etxea-ko kide Txabi Anuzitak bizi handiz hitz egin zigan Zanbranari buruz eta Zabalateko gazteluaren egitasmoaren inguruan. Berehala jarri ginen harremanetan Aitor Abecia herriko alkatearekin eta egitasmoa martxan jarri genuen", azaldu du Fernandezek. Iragan irailaren 29an grabatu zuten programa, alkatearen eta herriko biztanleen ezinbesteko laguntzarekin.

Doku-reality bezala definitu duten telebista saioaren asmoa ahaztutako herriak berreskuratzea eta ezagutaraztea da. *Salbatuzure herria* programan ondare arkitektonikoan, gastronomian eta kultur-gintzan adituak diren hiru lagun herriz herri joango dira eta bertako biztanleak elkarrizketatuko dituzte. Programak web aplikazioa izango du, baita crowdfunding plataforma bat ere.

Proiektu ezezaguna

Zanbranako ondare arkitektonikoaren kudeaketan eragin duen kohesio soziala eta herritarren inplikazioa azpimarratu dute Uruguaitik, eta bertan egin den zaharberitze arkeologikoa eta arkitektonikoa "eredugarriak" direlako aukeratu dute telebista saio baten ikur gisa. Aitzitik, Añanan, Araban eta Euskal Herrian Zabalatek ez du merezi duen onarpena jaso.

Izan ere, gutxik jakingo dute Zabalate dela Arabako armarrian dagoen gaztelua eta Euskal Herrian dagoen multzo historiko ikusgarrienetako bat. Gaztelua 780 metroko garaierako haitz malkartsu, estu eta luzaran baten gainean kokatuta dago, eta itsasontzi forma berezia ematen dio



Zenbait gunetan banatuta dago Zabalateko inguruak. | PHOT. OK

horrek. XI. mendean eraiki eta zeregin militar aktiboa bete zuen Gaztela eta Nafarroako erresumen arteko borroketan.

Paraje miresgarria zaintzen du Zabalatek. Harkaizti malkartsu baten gainean kokatuta, Uda ibaiaren sarrera zaintzen du. Ocio-ko gazteluarekin batera – Toloño mendilerroaren

iparraldean biak– mendebaldetik ekialdera hedatzen diren bi haran kontrolatzen zituzten, Inglares harana eta Trebiñu barnean hartzen duen Uda ibaiarena.

2013an betiko desagertzeko zorian zegoen Zabalateko monumentu multzoa baina egindako lan sakinari esker turismo kultural aktiboaren eredu bilakatu da. Hala, besteak beste, zurezko pasabide bati esker gotorlekuaren zati bat ikus daiteke gaur egun eta audio-gida interaktibo batek lagunduta multzo osoa zeharkatu eta ezagutu.

Halaber familiei eta eskolei zuzendutako ginkana kultural interaktiboa prestatu dute Zabalateko ibilbidean Arabako Erdi Aroko historia ezagutarazteko. Umeek Bernardino Fernandez de Velasco jaunari lagundu behar diote gaztelua etsaiengandik babesten. Toki garrantzitsuenetako erronkak gainditu behar dituzte.



Zurezko pasabide bati esker, gotorlekuaren zati bat ikus daiteke. | PHOT. OK



Arabako Aldundiaren jauregian egin zuten batzarra, astelehenean. | QUINTAS

Trebiñuko auzirako "mekanismoen" bila

Arabako Diputazioak asmo "sendoa" agertu du Barrendegia zortzigarren kuadrilla izateko

MIRIAN BITERI
TREBIÑU

"Asmo sendoa dugu, indarrean den araudiak eskaintzen dituen aukeren barruan, mekanismoak bideratzeko, Trebiñuko udalak, herriak eta herri-tarrak gure lurraldearen

zatitzat har daitezten, alegia, Arabako Lurralde Historikoko zortzigarren kuadrillatzat jo dadin". Horixe esan du asteon Arabako diputatu nagusi Ramiro Gonzalezek.

Arabako Batzar Nagusietako presidente Pedro

Elosegirekin, Argantzun-
go alkate Roberto Ortiz Urbinarekin eta Trebiñuko Konderriko alkate Ernesto Argoterekin eta anexioaren alde lanean diharduen Ignacio Portillarekin elkartu aurretik egin zituen joan den aste-

lehenean Gonzalezek esandako adierazpenak.

Aldundiaren jauregian egindako bilkura hasi baino lehen erakunde adierazpena irakurri zuen diputatu nagusiak. Barrendegiko udal ordezkariak "eurena ere baden etxearen atea" ireki dizkiela azpimarratu zuen; alegia, "Arabako Foru Aldundiaren jauregiarenak". Jarraian, iragarri zuen aipatutako bilkuraren bidez hasiera eman zaiola "lankidetzan, elkar ulertzea eta senidetzea oinarri dituen harremanari".

Gonzalezek argi utzi zuen Arabako Diputazioak eta Batzar Nagusiek "asmo irmoa" dutela laguntzeko eta "beharrezko den guztian" lankidetzan aritzeko, "arabar gehien-gehienak duten eta trebiñarrak hainbat aldiz adierazi duten desira gauza dadin: hain zuzen, Trebiñuko enklabea Arabako Lurralde Historikokoan sartzea".

Oztopoak jartzeari utzi

Adierazpenak dei egiten die Burgosko Diputazioari, Gaztela eta Leongo Gorteei eta Espainiako Gorte Nagusiei eta Estatuari "oztopoak jartzeari" utz diezaiela, eta aintzat har dezatela Trebiñuko herritarren nahia; hau da, "Trebiñu Arabara sartzea ahalbidetu dezatela".

AIARALDEA BERTATIK BERTARA EZAGUTU NAHIP

Mendi ibilbideak, BTT, zaldi ibilbideak, argazkiak, parapentea, natura, perretxikoak, herriak, ondarea...



ZELAIKOETXE







NEKAZAL-ETXEA OZEKA (AIARA)

Gorbeia auzoa 2
Tel. 667 402 245
|artetxe@hotmail.com

Errefuxiatuei laguntzeko beharra dagoela agerian geratu da Bilarren

Errefuxiatuen aldeko Arabako Errioxako Herri Ekimenaren topaketan batutako dirua Gobernuz Kanpoko Erakundera bideratuko da

MIRIAN BITERI

BILAR

Errefuxiatuen aldeko topaketa berezia egin zuten zuten pasa den larunbatean Bilarren. Lehenengo, gatazka guneetan sei urte daramatzan Alberto Pradilla kazetariak ikusitakoa azaldu zuen. Jendetsua izan zen esandako berbaldia; 100 lagun inguruk parte hartu zuten eta kazetariari askotariko galderak egiteko aprobetxatu zuten.

Jarraian, elkarretaratzea egin zuten; 120 bat pertsona aurrean irakurritako komunikatuan, besteak beste, Araban dauden bi arma enpresak kritikatu zituzten, arazoaren "oinarri" direlako.

Pintxoak euro baten truke

Kontzentrazioa amaitzean, errefuxiatuen aldeko pintxo lehiaketa heldu zen. Saririk ez zen izan horretan; 20 lagunek prestatutako askotariko pintxoak euro baten truke saldu ziren, Irule taldeko trikitilariek giroa alaitzen

zuten bitartean; denera, 300 pintxo. Musikarekin amaitu zen topaketa: lehenengo Guardiako Eduardo Llorente musikariaren txanda izan zen, eta horren ostean etorri ziren, EH, Mertxe, Astoratuak, Mossin Nagant eta disko jarzailleak.

Errefuxiatuen aldeko Arabako Errioxako Herri Ekimena izan da topaketa antolatu duena. Bertako

kide Nerea Samaniegok jakinarazi du larunbatean batutako dirua Medicos Sin Fronteras Gobernuz Kanpoko Erakundera bideratuko dutela.

Mozioa

Ez da hori herri ekimenak egindako ekimen bakarra. Horrez gain, errefuxiatuen aldeko mozioa aurkeztu dute Arabako Errioxako udaletan eta baita kuadri-

lletan ere; azken horretako presidente Joseba Fernandezekin ere batu izan ziren urriaren 21ean gaiaz hitz egiteko. Aurkeztutako mozioak bi eskaera ditu: batetik, Udalek eta Kuadrillak gainerako erakundeek eska diezaietela neurriak har ditzaten; eta bestetik, udalek errefuxiatuak har ditzatela. Herri ekimenak ez du baztertzeko bestelako ekintzak egitea.



Jendetsua izan zen joan den larunbatean Bilarren egindako elkarretaratzea. | NEREA SAMANIEGO



Alberto Pradillak errealitate gordinaren berri eman zuen. | N.S.



Hirurehun pintxo solidario saldu zituzten. | N.S.

ILUNE BASTERRA

ERRIGORA EKIMENEO ARABAKO ARDURADUNA Nafarroako nekazarien produktuak bitartekorik gabe salduz, kontsumo arduratsua sustatu eta euskalgintzako eragileei bultzada emango die Errigora ekimenak Arabatik ere. **A.ALVAREZ GASTEIZ**

"Saldutako saskiekin euskara ikasleak, eskolak eta ikastolak lagunduko ditugu"

Geu elkarteko lagunek asteartero 17:00etatik 18:00etara Radio Vitorian eskaintzen duten Hirinet FM irratzaioan egon da aste honetan Ilune Basterra, Errigora ekimeneko Arabako arduraduna. Bertan, Arabatik Errigora egitasmoaren baitan egiten duten lana azaldu du.

Nekazaritza eta euskara uztartzen ditu Errigorak. Zertan datza?

Nafarroako Erriberan kokatutako ekimen bat da, hor hasi baitzen dena; Errigora hitz joko bat da, eta hortik dator: Erriberatik, Errigora. Bertan sortu zen ekimena, bi aldarrikapenen bueltan. Alde batetik, Nafarroako hegoaldean euskararen egoera zein den jakinda, horri erantzuteko biltzea erabaki zuten eta, aldi berean, bertako nekazaritzari bultzada bat eman nahi zioten. Bi helburu horiek sustatzen ditu Erri-



Arabako Errigorako lantaldea. | ERRIGORA

"Oinarria da bertako produktuen salerosketa; bitartekorik gabe, zuzenean ekoizleari erostea"

gorak. Oinarria da bertako produktuen salerosketa, baina bitartekorik gabe, beraz, bertako nekazaritza produktuak zuzenean ekoizleari erostea. Horrekin batera, hiru kanpaitako batean, orain aurkezten ari garena hain zuzen ere, euskarari lagunduko diogu. Kanpaina honetan aterako dugun diruaren zati bat euskarari eta Nafarroako Erriberako hainbat eragileri bideratuko diogu, AEK tartean. Haiek beka sistema bat abiatu dute, Errigoratik ateratako diruari esker ikasleek euskara ikas dezaten. Horrez



PARRAL TABERNA

San frantzisko xabier kantoia 4, GASTEIZ

MENU BEGETARIANO ASTEAN ZEHAR

KULTUR EMANALDIK ASTEARTERO GOSARIAK

RAZIO BEGETARIANOAK ASTEBURUETAN

gain, Sortzen elkarte eskola publikoan D eredia Nafarroa osora zabaltzeko lanean dabil, eta haientzat izango da laguntza ere; eta, azkenik, ikastolei lagunduko diegu. Aurten-go diruaren %25 Vianako eta Lodosako ikastoletara bideratuko dugu.

Nola sortu zen?

Zazpiak Bat Harreman Sareak abiatu zuen proiektua 2012an Ikastolen Elkartearekin batera, baina 2013an proiektuari nortasun eta antolakuntza propioa ematea erabaki genuen.

Zein da Errigorako bezeroen profila?

Exigenteak dira, produktuen kalitatea oso ona delako; aldi berean, kontsumo arduratsuan sinesten dutela suposatzen dut, kontsumoa irizpide batzuen arabera egiten dutelako; kasu honetan, bertako nekazaritza bultzatzea. Auzolanaren bidez parte hartzen du jendeak hori egiten, beraz hori ere babesten du hau erosten duenak, eta euskaltzalea izango da, noski, lehenengo kanpainan euskarara bultzatzeko erabiliko delako dirua.

ENTZUN ELKARRIZKETA: HIRINET.NET



Ilune Basterra, GEU elkarteko Hirinet FM irratsaioan.

HIRINET FM

GAZTE SORTZAILEAK BEKA DEIALDIA

Gasteizko Udalaren Euskara Zerbitzuak, Arabako Foru Aldundiaren Euskararen Foru Zerbitzuaren laguntzarekin, Gazte Sortzaileak beka deialdia sortu du.

- Beka horren helburuak:
 - Gazteen artean sorkuntza bultzatzea
 - Gasteizko kultura programazioan, besteak beste, eragitea, gazteek gazteentzat sortutako jardueren bidez.
- Deialdi honetara aurkeztuko diren kultur ekitaldi edo proiektuak euskaraz eta ahozkotasanari estu-estu loturik egongo dira: antzerkia, bakarrizketa, poesia-emanaldia, musika, bertsolaritza, ikus-entzunezkoa, baita diziplinen arteko hibridazioa ere.
- 17 eta 35 urte bitarteko gazteek parte har lezake deialdi honetan. Horretarako bi kategoria antolatu dira: 17-24 eta 25-35 biak barne.
- Formatu txikiko jarduerak hobetsiko dira.

**Proiektuak azaroaren 13a baino lehen bidali behar dira helbide honetara:
Gasteizko Udalaren Erregistro Nagusia -Teodoro Dublang margolaria 25**

DEIALDIAREN OINARRIAK OSO-OSORIK: www.vitoria-gasteiz.org/euskara



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

**VITORIA
GASTEIZ**
green capital



Amaia, Lucia, Manal, Paola eta Izar gazteak kanpainaren komikiaren bost protagonistak izango dira. | GASTEIZKO UDALA

Harremanak, denon esku

Kanpaina berria jarri du martxan Gasteizko Udalak Emaize sexologia zentroaren eskutik, neska gazteei haien buruarekin nahiz harremanekin gustora sentiarazten laguntzeko; besteak beste, komiki bat argitaratuko dute sarean. **EMAIZE-ERREDAKZIOA** GASTEIZ

EMAIZE
SEXOLOGIA ZENTROA
www.emaize.com



Urriaren 19tik aurrera Gasteizko emakume gazteei zuzendutako *Zure esku ere badago* kanpaina abian jarri du Gasteizko Udalak Gazteriarren sailaren bidez eta Berdintasun sailaren laguntzarekin, Emaizek lan teknikoak eginez.

Kanpaina honen helburu nagusia neskei beren burua ezagutu eta onartu dezaten, eta beren buruarekin eta beren harremanetan ongi sentitzeko moduan joka dezaten laguntzea da. Aurreko artikuluetan idatzi dugun bezala, gure ustez funtsezkoa da harremanetan norberaganako segurtasuna, autoestimua, asertibitatea, errespetua eta ardura sustatzea.

Beste jarduera batzuen artean, kanpainaren barruan komiki bat argitaratuko da hamabostean behin sare sozialetan eta *zureskuere.com* webgunean, guztira zazpiko sorta osatu arte. Komiki hauetan prota-

gonistak bost neska dira: Amaia, Lucia, Manal, Paola eta Izar, nahiz eta jatorri oso desberdinekoak izan, elkar ulertzen eta elkarri laguntzen diotenak.

Funtsezkoa da harremanetan segurtasuna, autoestimua, errespetua eta ardura sustatzea

Nahiz eta komiki hauek gazteei zuzenduak izan, gazte-eragileentzat ere interesgarria izan daiteke beraien lanerako. Horretarako web orrialdean komikiak lantzeko materiala

topa dezakete, nerabe eta gazteen artean eztabaida, hausnarketa eta pentsamendu kritikoa sustatu asmoz.

Gazteez gain inguruan gauden heldu esanguratsuok garrantzi handia dugu sexuen arteko harremanak eraiki, gidatu, gozatu, pairatu, amaitu edota bizitzeko sortzen diren ingurunea aiposagoa izateko erronkan. Harremanen munduan bakoitzak bere pentsatu eta jokatzeke moduak dauzkagu eta, norberari ongi badoakio, ez dago berez besteak baino hobe denik. Hala ere, gureak ez doazenean guztiz ongi ingurukoan aniztasunak aukera ederrak eskaintzen dizkigu geure katalogora gehitzeko.

Guztion esku ere badago!

emaize
CENTRO SEXOLÓGICO • SEXOLOGIA ZENTROA
Bueno Monreal 1, behea • 01001 Vitoria-Gasteiz
945 26 58 96 • emaize@emaize.com • www.emaize.com

Azken zozketako irabazlea:

Parralen bazkaria:

Izaskun Agirre Oteiza (Gasteiz).



ZOZKETAK

Harpidedunentzat eskaintzak

Zehaztu zure izen-abizenak eta zer zozketatan parte hartu nahi duzun:



695 63 28 62



erredakzioa@alea.eus



Jimmy jazz
gasteiz

PEIREMANS⁺

Peiremans kontzertua

Imanol Ubedak (Bide Ertzean), Gorka Urbizuk (Berri Txarrak), Txikik (Kashbad) eta Marino Goñik (Balerdi Balerdi) kontzertua eskainiko dute Jimmy Jazzen, azaroaren 6an (ostirala), 21:00etan. Sarrera bikoitza lortzeko, eman izena azaroaren 2a baino lehen; 6an jakinaraziko dugu irabazlea.

salto

antzezlana
metrokoadroka eta jb pedradas



Baratza

Salto antzezlana

ALEAK **bi pertsonentzako** sarrera bikoitza zozketatuko du, Gasteizko Baratza aretoan euskarazko *Salto* antzezlana ikusteko, azaroaren 8an (igandea), 19:00etan. Eman izena **azaroaren 3a** baino lehen; 6an jakinaraziko dugu irabazlearen izena.



ERRI GORA

Errigora saskia

Nafarroako Erriberan euskara eta nekazaritza sustatzea helburu duen Errigora ekimenaren eskutik, 50 eurotan baloratutako **produktu ekologikoen saski bat** zozketatuko du ALEAK. Eman izena azaroaren 2a baino lehen. Hilaren 6an jakinaraziko dugu irabazlea.



ARROIABE

Maidar Gorospe

"Beti alboan izan zaitut eta zurekin milaka kilometro. Zorionak eta musu bat Maitaneren partez".



ZURBAO-GASTEIZ
Igor Lopez de Munain

"Ilerik ez mingaiean, lotsa gutxi eta inoren aurrean kokiltzeko beharrik ez. Jarrai ezazula urte askoz hautsak harrotzen. Zorionak laguneren partez!".



GASTEIZ

Ane Pedruzo Redondo

"Proiekturik pentsaezinenak egi bihurtzeko daukazun talentuagatik, jendea batzeko duzun gaitasunagatik, ilusioa kutsatzeko duzun indarragatik eta, *diox*, begietan duzun dirdira amaitezin horrenagatik, Ane: zorionak GEUko laguneren partez! Hogeita hamar musu euskaltzale".



Norbaiti zure mezua helarazi nahi diozu?
erredakzioa@alea.eus
625 231 603

GASTEIZ

Iñaki Larrañaga Aizpurua

"Bi donuts jan al dituzu? Madrildar txapel horrekin guapo-guapo zaude. Gasteizko kazetari euskaldunen sare enbrionarioko laguneren partez... zorionak, Larrañaga!".

AZAROAK 6 NOVIEMBRE
19:00

"YI-HA" Cia Los moñekos
Danza/Familiar 6€cant/8€taq

AZAROAK 8 NOVIEMBRE
20:00

"SALTO" Metrokoad-
roka
Antzerkia euskeraz
6€cant/8€taq

21:30
Bitchin Bajas
Musika

AZAROAK 7 NOVIEMBRE
20:00

"SABA" Cia. Lali Aiguadé
Danza
6€cant/8€taq

Baratza
Aldabe Plazaboa, 4 GASTEIZ
www.salabaratz.com



HITZ GEZIDUNA

	Etxeko oinetakoa	Ez kontso-nanteak	Haragikeriak menderatua
	*	Leku honetara	Txinako dirua
	▶	▼	▼
	Korrokada	▶	
	Bikoa		
Gizon izena	▶	Fruitu mota	▶
Diruzko ondasun		Ipar EH-n, orrialdea	
			Kontso-nantea
			Errioxako herria
Erabat bustita	▶		Ohe jangarri
Gipuzkoako herria			Eguzki
▶		Barazki lekadunak	▶
		Europiaren ikurra	
Ez arrak	▶		Hizki grekoa
Lege			Kontso-nantea
		Putzu	▶

* Guardiako aztarnategia, Burdin Aroko herrixka

SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNA



SUDOKUA



GOITIBEHERA



SUDOKUA

	3			8		9		
		2	9					6
		4			1		8	
	7	5	8					3
	8						9	
6					7	5	4	
	4		1			7		
3					6	4		
		6		5				3

Nola jokatu? 9x9-ko lauki honetako gelaxka hutsak bete behar dituzu, 1etik 9ra bitarteko zenbakiekin; zenbaki bakar bat ere ez da bi aldiz azaltzen errenkada eta zutabe berean, eta ezta dagokion 3x3-ko laukian ere.

GOITIBEHERA

1							
2							
3							
4							
5							
6							
7							
8							
9							

Nola jokatu? Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu behar duzun hitzak.
 1. Landa eremuko etxebizitza. 2. Euskaldunon egunkaria. 3. Albiste, notizia. 4. Aiarako kontzejua. 5. Gaixo. 6. Zati bi. 7. Bizkaiko udalerrria, Txorierrin. 8. Sikate, lehorte. 9. Auhena, adia, kexu.



'Zapatila gorridun mutikoa'

Agurain. Larunbata 31, 19:30ean, Harresi aretoan.

ALEA

'Hitz baten olerkiak', Zirikaren erakusketa

Gasteiz. Azaroaren 15era arte, Oihaneder Euskararen Etxean. Miguel A. Hernandezen (Zirika) proiektua.



ALEA

URRIAK

30

AZAROAK

5

EUSKARAREN AGENDA

MUSIKA

Glaukoma eta Bad Sound

Gasteiz. Ostirala 30, 21:30ean, Jimmy Jazz aretoan.

ANTZERKIA

'1805' Asier Kidamen magia ikuskizuna

Gasteiz. Igandea 1, 19:00etan, Aldabe gizarte etxean.

'Etxekoak' Huts taldearekin

Gasteiz. Asteazkena 4, 20:30ean, Principal antzokian.

BERTSOLARITZA

Lagun artekoa

Amurrio. Ostirala 30, 21:30ean, gaztetxean. Iñigo Mantzisor eta Eñaut Martikorena bertsolariekin.

HAURRAK

Beldurrezko efektuak bereziak sortzeko makillajea

Gasteiz. Ostirala 30, 17:30ean, Aldabe gizarte etxean. Tailerra, Amets Martinez de Herediarekin. 9-12 urte artean.

"Herriko azken lamia" ipuina

Gasteiz. Larunbata 31, 11:30ean, Ibaiondo gizarte etxean. 5-8 urte bitartean. Sustrairbarraren eskutik.

"John Brownek bost luma ditu" ipuina

Gasteiz. Larunbata 31, 11:30ean, Judimendi gizarte etxean. 5-7 urte bitartean.

Euskal erromeria

Laudio Larunbata 31, 17:30ean, Aretako kultur etxean. Umeentzako dantaldia. Arima taldearen eskutik.

'Zure izena akuarelaz' lantegia

Gasteiz. Astelehena 2, 18:00etan, Iparralde gizarte etxean. 6-10 urte bitartean.

'Egunik garrantzitsuena' ipuina



ALEA

'Bertsolaritza', Xabi Igoarekin

Legutio. Osteguna 5, 19:00etan, kultur etxean. Gorbeialdean kulturaren

esparruan lanean ari diren lau lagunek sormena izango dute solasgai zenbait hitzalditan. Xabi Igoarekin batera, Jose

Cruz Gurrutxaga (azaroak 12), Unai Lobo (azaroak 19) eta Blanca Gomez de Segura (azaroak 26) izango dira hizlari.

Gasteiz. Asteartea 3, 18:00etan, Salburuko gizarte etxean. 12-36 hilabete artean. Bego Alabazan ipuin kontalariarekin.

IKUS-ENTZUN

'Lusitaniar herrialdean zehar' diaporama

Gasteiz. Asteartea 3, 20:00etan, Oasis tabernan (Olagibel, 45). Geu elkarte eta Oihaneder Euskararen Etxearen eskutik.

HITZALDIA

'Bizi baratzea' liburuaren aurkezpena

Gasteiz. Asteazkena 4, 19:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean. Jakoba Errekondo idazlearekin.

BESTELAKOAK

Arabako Errioxako Mintzalaguna egitasmoa

Oion. Izena emateko azken

eguna: urriak 30. Oionen (ikastola, euskaltegia eta Udala), Eltziego (Udala), Lapuebla (ikastola), Lantziego (ikastola), Guardia (euskaltegia), Bastida (ikastola) eta Vianan (ikastola) eman daiteke izena.

'Hizpidea' magazinaren aurkezpena (Hala Bedi)

Gasteiz. Osteguna 5, 19:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean.

BESTE HITZORDU BATZUK

MUSIKA

Josep Lluís Galiana eta Carlos D. Perales

Gasteiz. Ostirala 30, 20:00etan, Artiumen.

Los Carniceros del Norte, Brioles eta 13 Bats

Gasteiz. Larunbata 31, 20:00etan, Jimmy Jazzen.

Sexy Zebras

Gasteiz. Larunbata 31, 21:30ean, Kubik aretoan.

The Buttshakers

Gasteiz. Larunbata 31, 22:00etan, Hell Doradon.

ANTZERKIA

'El beso', Tanttaka tadearekin

Gasteiz. Ostirala 30, 20:30ean eta 22:30ean, Principal antzokian.

'Cabaret Chihuahua', Pabellon 6 taldearekin

Gasteiz. Ostirala 30, 20:30ean, Felix Petite antzokian.

'Bodas de sangre', El Bardo taldearekin

Amurrio. Larunbata 31, 20:00etan, Amurrio antzokian.

'Dinamo', Timbre 4 taldearekin

Gasteiz. Larunbata 31, 20:30ean, Principal antzokian. Ondoren solasaldia izango da.

'Imaginarium', Michelle Man eta James Hewisonekin

Gasteiz. Larunbata 31, 20:00etan, Artiumen.

ERAKUSKETAK

'World Press Photo'

Gasteiz. Azaroaren 15era arte, Montehermoson.

'Punk. Sus rastros en el arte contemporáneo', bilduma

Gasteiz. Urtarrilaren 31ra arte, Artiumen. Punk mugimenduaren inguruko erakusketa.


'Interfaz', Jose Luis Ramirezzen argazki erakusketa

Gasteiz. Azaroaren 15era arte, Amarica aretoan.

BESTELAKOAK

Nekazal azoka

Aramaio. Larunbata 31, goizean zehar. Eskulanak eta nekazal produktuak.



bernaola festival 2015

XII edizioa

urria / azaroa

28	Basuromio instalazioa	12	Ensemble This / Ensemble That	22	Musikari Gazteak IV
30	J. L. Galiana & C. D. Perales	14	Tamgram / Musikari Gazteak II	23	S��verine Ballon
31	Michelle Man & James Hewison	15	Musikari Gazteak III	24	Luis Tabuenca
01	Basuromio / Akusma	16	Alfonso G��mez	26	Ensemble TaG
05	Musikari Gazteak I	19	Peter Veale	27	Musikene Orkestra
07	Ensemble Sinkro	21	Sigma Project	30	Guridi Garaikidea

www.bernaolafestival.com



Arabako Foru Aldundia
Diputaci  n Foral de   lava